

#udaltop16



udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

ETORRI BERRIAK
EUSKARARA
ERAKARTZEKO
BORTZIRIETAN ZER?

www.udaltop.eus

URKO IKARDO ENPARAN
BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA



ETORRI BERRIAK EUSKARARA ERAKARTZEKO BORTZIRIETAN ZER?

Bortziritan harrera linguistikoaren gaia jorratzen aspaldi hasi ginen, eta, harrez geroztik, Euskal Herritik kanpo sortutako herritarrei zuzendutako esku hartzeak abian ditugu. XXI. mendeko immigrazioa hizpide, inoizko hizkuntza eta kultura aniztasun handiena dugu gurean. Etorri berrien harrera eta hizkuntza zein kultura aniztasuna zehar lerroko gaiak dira gure biziberritze planean, eta zenbait arlotan eragiteko abian diren jardueretan isla du horrek. Gaia(k) lantzeko moduz eta jardueraz arituko gara aurkezpenen honetan.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. DIAGNOSTIKOA	5
3. EGITASMOAK	16
4. BUKATZEKO	23
ERANSKINA	23

1. SARRERA

Orain dela 20 urte pasatxo hasi ginen immigrazio berrien gaia lantzen eta herritar etorri berriak euskarara erakartzeko jarduerekin. Gure esperientziaren eta gaur egun abian dugun planaren ingurukoak BAT Soziolinguistika Aldizkariko 119. zenbakiko [artikulu honetan](#) dituzue irakurgai. Egun indarrean dugu plan estrategikoaren epealdiaren bukaerara iritsi gara. Urte bukaeran ebaluazioa eginen dugu eta heldu den urtean plan estrategiko berria (hirugarrena) abian jartzea espero dugu. Hizkuntza harrerari eta aniztasunari dagokionez, ez dugu erranen dena hankaz goiti paratuko dugunik, baina ziurrenik izanen dira aldaketak, gainerako gaiekin bezala gelditu eta tarte bat hartuko dugu patxadaz gogoeta egiteko. Aurtengo Udaltop gogoeta horretarako baliagarria izanen zaigulakoan gaude.

Hizkuntza harrera udalerrri euskaldunen ikuspegitik lantzen dugu, eta hartara, UEMArekin elkarlanean aritu gara eta ari gara. Betiere, hizkuntza harrerak erantzun behar dio tokiko errealitateari, zentzu horretan, irizpide eta plan orokorrak behar ditugu, baita tokian tokiko egitasmo eta esku hartzeak ere. 2017an Topagunearen aholkularitzarekin hizkuntza harrera plana osatu genuen eta funtsean bertan jasotzen ziren xede, irizpide eta ekintzak bere egin zituen mankomunitatearen plan estrategikoak. Hizkuntza harrerari dagokionez, xedetzat hartu ditugu kanpotik Bortzirietara bizitzera etorri diren herritarrak eta saiatu gara herritar tipologiaren arabera mezua eta baliabideak egokitzen. Dena dela, azken urteotan Euskal Herritik kanpo sortu diren herritarrak bilakatu dira hizkuntza harreraren lehentasun, eta, harreraren unetik harago, edo horretaz gain, luzera begirako ekimenei eman diegu garrantzia (oinarriko euskara ikastaroak, doakotasuna, eskola indartzea, eta abar.).

Urte hauetan guztietan harreraren eta aniztasunaren gaia sistematizatzeko saiakera egin dugu, eta horrek izan du isla gure planetan. Etorri berriei harrera linguistikoa eta hizkuntza zein kultura aniztasunaren aitortza hasieratik elkar hartuta ulertu ditugu¹. Urte hauetan gure begiradan eta gaiari heltzeko moduan garapena izan da: hizkuntza integrazioaz ari garela, gaur egun gehiago erreparatzen diogu harreragileok dugun ardura eta egitekoari. Kultura eta hizkuntza aniztasuna zehar lerrotzat ditugu gure plan estrategikoan (2021-2024²) eta gero eta garrantzi handiagoa du kanpotik Bortzirietara bizitzera etortzen diren herritarrei hizkuntza harrera egitea. Zehar lerro izaera modu honetara formulatzen dugu: *azken hamarkadotan kultura eta hizkuntza aniztasuna areagotu dira eta herritarren elkar bizitza bermatzeko aniztasun hori aintzat hartu beharra dago. Euskara ardatz duen gizarte kohesioaz ari gara, bateratzailea izango dena eta inor bazter utziko ez duena. Aniztasuna planaren ildo eta arlo guztietan kontuan hartuko da.*

¹ Gure hasierako ongi etorri argitalpenean gure eskualdetik kanpora bizitzera joan behar izan zutenen historia gogoratuta, enpatia erakutsita eta zubiak eraikita; edota hizkuntza eta kultur aniztasunaren aitortza eginez, jatorrizko hizkuntza transmititzearen eta etxean hitz egitearen garrantzia azpimarratuta.

² Herritar eta eragileen parte hartzearekin osatu ditugu gure bi plan estrategikoak, eta Elhuyar aholkularitza bidelagun izan dugula.

1. SARRERA

Helburu estrategikoetara jauzi eginez, lehentasunezko helburu ditugu etorri berriak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea eta belaunaldi berriak euskalduntzea: *etorkizunean euskaldunen dentsitate altuko herri edo arnasmune izaten segitzeko ezinbertzekoa izanen da, gure herrietako kultur eta hizkuntza aniztasuna aitortuta, etorri berriak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea, eta belaunaldi berriak euskalduntzea.*

Hiru ildo nagusi bereizten dira plan estrategikoan: *belaunaldi berrien sozializazioa, hiztun berriak eta gizarte erabilera.* Harrera linguistikoarekin eta hizkuntza zein kultura aniztasunaren aitortzarekin zerikusia duten jarduerak arlo ezberdinetan daude barreiatuta (horretan gauzatzen da zehar lerrokotasuna); 8 helburu eta 12 jarduera aurreikusi ditugu. Horiek aipatu aitzin, diagnosiari buruzko ohar batzuk egingen ditugu.

2. DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoan bertan antzematen da gaiari ematen diogun garrantzia; eskura ditugun baliabideekin immigrazio berriaren fenomenoaz aztertzen saiatu gara. Hemen ere azpimarratu behar dugu Topagunearekin 2017an egin genuen harrera plana; lehenbizikoz, jatorriaren inguruko datuak bildu genituen, baita hurbilpena egin ere Bortzirietan den hizkuntza eta kultura aniztasunera. Hezkuntza arloan immigrazio berriak duen dimentsioa ezagutzen eta neurtzen saiatzen gara, nahiz eta zenbait hutsune eta hobetzeko baditugun. 2017tik aitzinera euskaltegiko matrikulazio datuetan jatorriaren datua bildu dugu. Azken urteotan, sistematikoki biztanleen jatorriari buruzko INE eta NASTATen datuak bildu eta ustiatzen ditugu. Immigrazioaren eta aniztasunaren gaira hurbiltzeko ahalegina egiten dugu, hortaz, estatistika publikoen ustiaketa eskutik. Horren harira, bi baieztapen egiten ahal ditugu: 1) atzerrian jatorria duen biztanleriaren proportzioa hazten ari da eta hurrengo urteetan gehiago haziko dela aurreikusten da. 2) Gaur egungo immigrazioko biztanleriaren artean inoizko aniztasunik handiena dugu, bai jatorri-estatuei dagokienean, baita kultura zein hizkuntza ezberdinei dagokionez ere. Informazio hau eskuragarri dago gure webgunean, Bortzirietako egoera soziolinguistikoari buruzko [txostenean](#).

Datu batzuk aipatzearen (aurkezpenean ez gara xehetasunean sartuko):

Jatorri aniztasuna.

- Azken 15 urtean estatutik kanpo jaiotako herritarren zenbatekoa bikoiztu egin da (% 9,2).
- Beran, herririk handienez, proportzioa % 12,8 da.
- Bertze probintzietan jaiotako en artean baditugu Euskal Herrian jaiotakoak, bainabaita estatuan jaiotako makina bat herritar ere (% 18,1).
- 25 nazionalitateetik goiti daude Bortzirietako herritarren artean; egundainoko hizkuntza eta kultura aniztasuna handiena.

Ikastetxeetako jatorri aniztasuna:

- Etorri berrien eskolatzeari buruzko datu batzuk baditugu, baina bertze batzuk falta ditugu.
- Hiru baieztapen egiten ahal ditugu:
 - Ikastetxe jakin batean etorri berrien (edo horien seme-alaben) proportzioa aunitzez handiagoa da (segregazioa).
 - Atzerrian jaiotako haurren proportzioa % 40 da.
 - Etorri berriak (edo horien seme-alabak) proportzioan aunitzez gehiago dira A eremuan (desberdinkeria).
 - A eredia %10etik behera badago ere, goiti egin du azkeneko urteotan (bereziki Beran).
 - Gero eta gehiago dira D eremuan matrikulatzen diren etorri berriak (edo horien seme-alabak). Baieztapen hori egiten ahal dugu, batetik, Arantzán, Etxalarren, Igantzín

2. DIAGNOSTIKOA

eta Lesakan D eredu bano ez dagoelako, eta, bertzetik, euskara indartzeko gero eta behar handiagoa sumatu delako; etxeko hizkuntza euskara ez duten familien zenbatekoa dezente eta agudo hazi da, eta horietako aunitzek atzerrian dute jatorria.

Euskaltegian ere nabarmena da ikasleen jatorri aniztasunaren areagotzea.

- Ikasleen jatorriak askotarikoak dira eta azken ikasturteotan ikasleen herenetik goiti Euskal Herritik kanpo sortuak dira.

Atzerrian jaioak eta euskararen ezagutza.

- Euskaldunen zenbatekoa estatutik kanpo jaiotako herritarren artean % 13,8 da.

Aipamen berezia merezi du Pello Apezetxea Zubiri ikerketa beka. Euskaltzaindiak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ikerketa beka sortu genuen Bortzirietan itzal handikoa izan zen euskaltzain eta euskaltzalearen omenez. Oinarrietan zenbait sozio-linguistikako gai proposatzen dira ikerketa ildo gisa, bertzeak bertze, *“Immigrazioa, harrera, hizkuntza eta kultura aniztasuna eta euskara udalerrri euskaldunetan”*. Lehenbiziko deialdi honetan aukeratu den egitasmoa honako hau izan da: *Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak*. Ikerketa hau hagitz baliagarria izanen zaigu ikastetxeetako aniztasunaren inguruko datu xeheak lortzeko, eta, oro har, eskualdeko hizkuntzen mapa osatzeko. Baina, batez ere, etorkinen euskararekiko pertzepzio eta jarreraren inguruko lehenbiziko eskuko informazioa eskuratu ahal izanen dugu, eta hori guretzat aski baliagarria izanen da. Izan ere, arlo kualitatiboan hutsune nabarmena dugu. Une honetan ikerketa taldea landa lana bukatzen ari da eta ikerketaren emaitzak udarako espero ditugu, aintzat hartuko ditugunak plan estrategiko berriko esku hartzeak definitu eta erabakitzeko.

3. EGITASMOAK

Arestian aipatu dugu 12 jarduera aurreikusten direla gure planean aniztasunarekin eta hizkuntza harrerarekin harremanetan. Aipatu dugu, halaber, aniztasunaren eta hizkuntza integrazioaren gaiak zeharkakoak direla. Bada aurkezpen hauetan, ez ditugu arlo horietako jarduera guztiak aipatuko eta, gainera, harrera linguistikoarekin eta hizkuntza zein kultura aniztasunaren berariaz zerikusirik ez duten jarduera pare bat aipatuko dizkizuegu.

Ildoa: HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA

Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA	
HELBURUAK	JARDUERA
<p>Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako ikasleen euskararako ibilbidea erraztea eta laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.</p>	<p>Euskara indartzea behar duten haur eta gazte-txoentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz. <i>Solasean egitasmoa.</i></p> <p>Hezkuntza mundutik egin ziguten eskaera bati erantzunez sortu genuen. Familia eta haur tipologiak azkar ari dira aldatzen: aunitzez gehiago dira orain euskara etxean ez duten edo urrun duten haurrak, horietako aunitzek adierazkortasun arazoak dituzte eta kanpotik etorriak edo kanpoko jatorria duten gurasoen seme- alabak dira. Beraz, egitasmo honetan parte hartzen duten guztiak ez dira etorri berriak edo euren seme-alabak.</p> <p>Euskara indartzea eskola orduz kanpo egiten da eta aisialditik; batez ere ahozko adierazkortasuna lantzen dute era ludikoan. Ez da etxeko lanak egiteko egitasmoa, ongi pasa eta elkarri laguntzeko baizik. Dinamikak eta jolasak egiten dituzte herrian barrena eta saiakera egiten da gainerako hurrekin harremanak izan ditzaten. 8-12 urte bitarteko haurrak ari dira Solasean egitasmoan. Taldeak Beran (10 lagun) eta Lesakan (11) ditugu. Topagunearekin elkarlanean kudeatzen dugu Solasean, dagoeneko laugarren ikasurtea dugu eta balorazioa baikorra da.</p>

3. EGITASMOAK

Ildoa: HIZTUN BERRIAK

Arloa: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	
HELBURUAK	JARDUERAK
Euskalduntze- alfabetatzea sustatzeko urteroko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina,	<p>Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina.</p> <p>Euskalduntzeko matrikulazio kanpaina ez da berariaz etorri berrientzako jarduera, baina azken urteotan ahalegina egin dugu hiztun berriei eta euskara ikasleei hitza eta ikusgarritasuna emateko, tartean etorri berriei.</p> <p><i>Marina</i> <i>Meylin</i></p>
Euskalduntze- alfabetatzea unibertsalizatzea eta herritar ororen eskura egotea euskara ikasteko aukera. Giza talderik ez diskriminatzea euskara ikasteko eskubideari dagokionez.	<p>Euskara ikasten ari direnei dirulaguntza eman.</p> <p>Bortzirietako dirulaguntza sistema, doakotasuna ortzimugan duena, garatu.</p> <p>2016an euskara ikasleentzako dirulaguntza sistema berria abiatu genuen, doakotasuna ortzimugan.</p> <p>Goiko bideoetan ikusten den bezala, ahalegina egin zen komunikazioan xede taldeen aniztasuna kontuan hartzeko eta harreran zerikusia duten eragileengana ailegatzeko (gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, etab.). Euskaltegiko ikasleen jatorri aniztasunaren hazkuntzean izanen zuen noski eraginik doakotasunak. Dirulaguntza sistema honen ezaugarri nagusiak dira ikastaroa % 100 ordaintzen dela bertaratzea % 85etik goitikoa bada, eta dirulaguntzaren zatirik handiena (% 75) ikasturte hasiera xamarrean jasotzeko aukera bada. Dirulaguntza aprobetxamenduarekin lotua dago, baina ez maila jakin bat (A1, A2, B1...) gainditzearekin.</p>
Arloa: KANPOTIK ESKUALDERA ETORRITAKOAK	
HELBURUAK	JARDUERA
Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako erdaldunak euskarara erakartzea eta euskararako ibilbidea erraztea zein laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.	<p>Harremanak euskaraz sustatzeko egitasmoa, euskara ikastaro berezituak (Euskara +, lan arlokoak), mintzapraktika esperientzia bereziak, etab.</p> <p>Oinarrizko euskara ikastaro hauek lanbide jakinekin zerikusia dute, zaintza, merkataritza, etab. Bortzirietan hiru ikastaro antolatu ditugu, 2019an, 2021ean eta 2023an, zaintza lanak eta ostalaritza gaitzat hartuta. Joan den urtekoa Lesakako zaharren egoitzan egin genuen eta aurten ere eskaintza egin asmo dugu.</p>

3. EGITASMOAK

Ildoa: GIZARTE ERABILERA

Arloa: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA	
HELBURUAK	JARDUERAK
<p>Elkar guneak sortzea, ezagutzarako eta uneak euskara erdigunean jarrita (BHHP³).</p>	<p>Kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruko ospakizuna ("Mugarik Gabe"ren ondorengoa).</p> <p>Garai batean Bortzirietan aniztasun besta eta jardunaldiak egiten ziren. Etorri berrien kolektiboarekin elkarlanean ekitaldiak antolatzen ziren eskubideak aldarrikatzeko, sentiberatzeko, elkar ezagutza eta ulermena lantzeko, eta abar. Euskara mankomunitatetik elkarlan izpiritu hori berreskuratu nahi izan dugu eta jatorri aniztetako herritarrekin taldea osatu dugu, hizkuntza harrera, hizkuntza eta kultura aniztasunaren aitortza eta integrazioa bezalako gaiak elkarlanean lantzeko. Sentsibilizazio ekitaldiren bat eta <i>aniztasun besta</i> antolatzearabaki dugu, heldu den astean Beran ospatuko duguna. Behin ospakizuna eginda erabakiko dugu taldeari zein segida eman. Taldekideen artean badira honako jatorri hauek: Santo Domingo, Figueres, Bilbo, Bera, Lesaka, etab. Taldea osatzeko deialdia egin genuenean gure asmoa zen Telegram bidez aldi bereko itzulpena kudeatzea, baina azkenean taldeak euskaraz funtzionatu du eta guretzat esperientzia aberasgarria izan da, praktikan bizitu baitugu jatorri aniztetako herritarrekin euskarazko espazio bat martxan jartzea, euskara gaitasun eta erraztasun maila ezberdinekin, erregistroa moldatuta eta gaztelaniazko itzulpenak edo hitzartzeak tartekatuta, etab.</p>

³ Bortzirietako Hizkuntza Harrera Plana (BHHP), Topagunearekin 2017an landu genuena. Horrek erran nahi du helburu hori (eta ekintza posibleak) harrera planetik plan estrategikora ekarri zirela.

3. EGITASMOAK

Arloa: HARRERA LINGUISTIKOA	
HELBURUAK	JARDUERA
<p>Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako erdaldunak euskarara erakartzea eta euskararako ibilbidea erraztea zein laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.</p>	<p>Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa eskaini, euskarri ezberdinak erabilia, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez.</p> <p>Etorri berrientzako <i>bideoa</i> eta baliabideen euskarri interaktiboa prestatu genituen erroldatzeko unerako, UEMAren esku orriak emateaz bat. Erroldako langileen laguntza izanagatik, zaila egin zaigu erroldatzeko unean bideoa helarazteko bidea sistematizatzea, eta bertze bide batzuk baliatu (beharko) ditugu, ikaste-txeetako guraso bilerak edo udaletako harrera bilerak kasu.</p> <p>Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrek gonbidatuta.</p> <p>Herrira bizitzera etorritako herritarrei ongi etorria emateko saioak antolatu ditugu, euskara eta hizkuntza zein kultura aniztasuna ardatz hartuta. 2022an Beran eta Arantzan egin genituen eta aurten Beran eginen dugu deialdia, hizkuntza eta kultura aniztasunaren egitarauaren baitan. Lehenbizi harrera eginen zaie etorri berriei herriko etxean eta gero bisita gidatua izanen da herrian barrena, besta gunean bukatuko dena. 2022ko Berako ongi etorri saioan, Ekhiñe Zapiain eta Julen Zelaieta bertsolariak bina bertso jarri kantatu zizkieten bertaratuei. Bertsoak pantailan izan ziren ikusgai, euskaraz eta itzulpenarekin. Bukaeran, oroigarri gisa, bertso paperak etxera eraman zituzten gonbidatuek. Ekitaldia berendu batekin bukatu zen. Gisa berean amaitu zen <i>Arantzako saioa</i>.</p>
<p>Herritarrek eta eragileak harreragile izateko sentsibilizatzea eta inplikatzeko (BHHP).</p>	<p>Formakuntza euskara eta aniztasunari buruz.</p> <p>Harreragile instituzionalei eta herritarrei formazioa eskaini diegu, harrera planaren inguruan, migratzaileen eta migrazio berrien errealitateari buruz, hizkuntza eta kultur aniztasunari buruz, eta abar. Joan den urtean Amelia Barquin Mondragoneko HUHEZIKo irakasleak bi trebakuntza saio eskaini zituen "Euskara harrera hizkuntza" izenburupean, goizean "harreragile instituzionalei" zuzendua, eta arratsaldean herritar eta gizarte eragileei. <i>Saioek piztu zuten arreta</i>, guztira 40 lagun inguru bertaratu ziren. Formazioa Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimendurekin elkarlanean antolatu genuen.</p>

4. BUKATZEKO

Bukatzeke, aitzinera begirako zenbait kontu aipatu nahiko genituzke. Laster batean plan berria diseinatzeko gogoeta prozesua abiatuko dugu eta etorri berriak euskarara erakartzeko ildo honek segituko du lehentasun izaten. Bi elementu giltzarri aipatuko ditugu guretzat funtsezkoak izanen direnak, zeregin horretan aitzinera eginen badugu:

- Mugimendu sozialaren berrindartzetik etor daiteke harrera eta aniztasun gaietan beharrezkoak diren bultzada eta aliantza berriak, eta, harrera instituzionalaren osagarri izanen den harrera soziala aktibatu eta indartzea. Horrez gain, funtsezkoa izango da datozen urteotan ikastetxe eta bestelako eragileekiko lankidetzan sakontzea, euskara ardatz duen kohesio soziala lantzea eta lortzea erronka kolektiboa baita, Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasunak dakartzan aberastasuna aitortu eta balioetsita betiere.
- Euskararen erabilera ari garen erakunde publikoen artean elkarlanean sakontzea funtsezkoa izanen da. Alde batetik, beharrezkoa da UEMArekin eta gainerako toki entitateekin elkarlanean sakontzea, eta, bertetik, Nafarroako Gobernuaren aldetik bertzelako babes bat beharko da. Bereziki, honako ardatz hauetan baliabideak bermatzea: etorri berrien seme-alabentzako euskara indartzeko programetan (eskolan bertan zein eskola orduz kanpo), etorri berrientzako harrera programa eta euskara ikastaroetan, eta herritar zein eragileentzako sentsibilizazioan, hizkuntza eta kultura aniztasunari buruz eta migrazio prozesuek planteatzen dituzten erronkei buruz.

ERANSKINA

→ **ILDOA: HAUR-GAZTETXOEN SOZIALIZAZIOA**

Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA

Helburua: Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako ikasleen euskararako ibilbidea erraztea eta laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.

27. Eskoletan guraso tutore eta harreragileen sarea sortu, kanpotik etorritako haurrei eta familiei laguntzeko.

29. Euskara indartzea behar duten haur eta gaztetxoentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz.

→ **ILDOA: HIZTUN BERRIAK**

Arloa: KANPOTIK ESQUALDERA ETORRITAKOAK

Helburua: Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako ikasleen euskararako ibilbidea erraztea eta laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.

44. Harremanak euskaraz sustatzeko egitasmoa, euskara ikastaro berezituak (Euskara +, lan arlokoak), mintzapraktika esperientzia bereziak, etab.

→ **ILDOA: GIZARTE ERABILERA**

Arloa: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA

Helburua: Eskualdeko hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzea, eta aniztasun horrekiko jarrera positiboa bultzatzea.

104. Migrazio eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kanpainak, eta etab.

Helburua: Elkar ezagutzarako guneak eta uneak sortzea, euskara erdigunean jarrita.

105. Kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruko ospakizuna ("Mugarik Gabe" ren ondorengo).

Arloa: HARRERA LINGUISTIKOA

Helburua: Etorri berriei ongi etorria ematea eta haiekin euskararen inguruko informazioa partekatzea, Bortziriak arnasmunean dela oinarri hartuta.

106. Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa, euskarri ezberdinak erabilia, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez.

107. Harrera instituzionala egiten duten eragileei (harrera, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, irakasleak...), hizkuntza harreraren inguruko formazioa.

108. Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrek gonbidatuta.

109. Bisita gidatua herria ezagutzeko: aisialdia, bizitza soziala eta baliabideak.

Helburua: Herritarrek harreragile izateko sentsibilizatzea eta inplikatzeta.

110. Ongi etorria emateko/egiteko prest dauden herritar boluntarioen sarea osatu.

111. Harrera sareko herritarrei formakuntza euskara eta aniztasunari buruz.

Helburua: Hizkuntza harrera planaren koordinazioa lantzea. Herritarren eta udal agintarien arteko elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzearen kultura sustatzea.

112. Hizkuntza harrera planaren koordinazioa, maila instituzionalean, eta harrera sareari dagokionez.

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus